

ZENBAT BURU  
Lourdes Zubiaurre

UDALETXETIK  
Otsailaren 26ko  
pienoa

GEHIGARRIA  
Kale zulotik  
baserrira

KULTURA  
11. Korrikaren  
aurkezpena

# BARREN

1999Io martmaren 5a  
VII. urtea - 269. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Jasone Osoro eta Ainhoa Lodoso

# Agur BARRENi

"BARRENen lankideak baino gehiago lagunak izan gara" Ainhoa eta Jasone



# GARBINE

, EDERGINTZA



P. M. Urruzuno, 27 II Tel: 943 74 31 32

## GORPUTZ OSOKO DEPILAZIOAK

- Beroa
- Temperatura baxukoa
- Depilazio elektrikoan azken aurrerapenak

## AURPEGIKO TRATAMENDUAK eta MAKILAJEA

- Azido glikolikoa
- Kateobitala
- Hidratazioa
- Regenerazioa
- Zimurren aurkakoa
- Aurpegi garbiketa
- Betileentzako tinte iraunkorra
- Ezkongaiantzat: alde zurreko tratamendua eta ezkontzarako makilajea

## GORPUTZEKO TRATAMENDUAK MANIKURA eta PEDIKURA

- Reafirmanteak
- Zelulitis tratamenduak
- Masajeak
- Paparreko lifting-a
- Algen tratamendua

Solariumeko 1 0 saiorekin, 1 DOHAINIK

14.00<sup>o</sup> (% 20 biktrutoo..)

## Eorzketa Asegurua

- Zure zerbitzura  
gaude behar  
gaituzunerako

DEI IEZAIGUZU,

Trb 902 136 524\*

\* Atzerritik deitzeko 341-581 18 28

Munduko edozein lekutan,  
edozein egun eta ordutan dela ere.

**LIAPERE**  
ASEGURU OROKORRAK

San Frantzisko, 40 behea • Tel: 943 74 05 82 - 74 14 04 • Faxe: 943 74 17 07



LOURDES ZUBIAURRE

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kotaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, piuraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Emakumeon borroka, urte osoko lana

**M**artxoaren 8an Emakumeen Eguna da eta nik ere gai honi buruz hitz batzuk esan nahi ditut. Gai asko daude emakumearekin lotutakoak eta batzuek gogoeta txiki bat merezi dute. Hiru baino ez ditut hemen aipatuko: arlo sozio-kulturala, hezkuntza eta osasuna.

Gaur egun emakumea izatea Afrikan edo Europan ez da berdina. Herrialde baten kulturaren eta ohituren arabera, adinaren arabera,... emakume batek egoera oso ezberdinak biziko ditu. Telebista piztu besterik ez daukagu zer nolako gauzak gertatzen diren ikusteko. Tratu txarrak, ablazioa (Afrikan eta herrialde musulmanetan batez ere), giza eskubideen ukapena etab.

Gure gizartean, emakumeari ezarri zaion sexuaren araberako rol banaketaren ondorioz, emakumeak ez ditu gizonezkoaren eskubide berberak izan. Baldintza nabarmenak jarri izan zaizkio bizitza sozialean, kulturean edo sozialean jardun ahal izateko. Gure gizartean nagusi den balore maskulinoen nagusitasunak argi erakusten du kultur munduan edo bizitza sozialean parte hartzeko gizonezkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasuna.

Hezkuntza sistemari buruz beste horrenbeste esan daiteke. Gaurdaino, neska-mutilen eskolaratzea sexuen arteko bereizketa sakonean oinarrituta egon da. Orain urte asko ez dela, familiako lanak egiteko eta etxearen administrazioa eramateko gaitasuna besterik ez zitzaion aitortzen emakume-

ari. Zeregin horiek egiteko irakasten ziguten. Gizonezkoei, berriz, esparru publikoetako lanak zegozkien. Ekonomian, gai sozialetan zein politikoetan antolatzailea edo burua izateko gaitasuna izan du beti gizonak. Emakumeak hezkuntza sistemaren barruan egon gara eta gaude, baina sexuaren hierarkiak baldintzatutako hezkuntza jaso dugu.

Osasunari dagokionean, emakumeak betidanik izan du bere ondoezei edo minei garrantzirik ez emateko joera. Era berean, gaitz hauek ez dira gaixotasunak kontsideratzen. Adibide batekin ulertuko duzue esan nahi dudana. Gizarteak ez du menopausia gaixotasun bat bezala ikusten, baina emakume askok izugarri sufritzen dute menopausia dela-eta (depresioa, ondoeza, gizonak baztertuko duen beldurra...). Honen haritik, duela pare bat aste Bilboko epaile baten erabakia datorkit burura. Etxeko lanak egiten zituen emakume batek pentsioa eskatu zuen etxeko lanak egiteko ezintasun fisiko bat argudiatuz. Epailearen erabakia argia izan zen: etxeko lanak egiteko ez da esfortra fisikorik egin behar, beraz, ez dago emakumeari pentsioa emateko arrazoirik.

Tamalez, horrelako kasu asko daude. (Gogoratu bestela Italiako epaile baten sententzia lotsagarria bortxaketa bat zela-eta). Gauza gehiago esan daitezke baina beste baterako utziko ditut.

Gogoratu behar duguna da emakumeon borroka ez dela egun batean lortzen. Urte osoan egin behar den lana da.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:

z 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegia, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Mailane Cid

MAKETATZAILEA Dea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia MarIn

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idola Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Amaiz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loliola, Ongarri Zine Kluba,

Ifigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARDURADUNA 1MEK101 Larrañaga

1NPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDA1LUA 55-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*Win fundazioa  
fundaciOn*

**4 DANOBAT**

**41 001111**  
GRUPO DANOBAT

## Euiskail Presook Euskal Nep 49a oraini

Euskal gizarteak Euskal Preso Politikoaren urteetako borroka eta duintasuna barneratu eta hauen eskakizuna bereganatu ditu.

Euskal Presoak Euskalerriratzea, herriaren oihua izateaz gain, Euskal Herriko hainbat erakunderen eskakizuna ere bihurtu da.

Hala eta guztiz ere, Espainiako gobernu faxistak, ez entzunarena eginez, Euskal Preso Politikoak beraien herritik milaka kilometrora eta sakabanaturik mantentzen ditu. Horregatik, gure herriko sektore abertzaleen eta aurrerakoien indarrak errebindikazio honen alde elkartzea garrantzitsua dela deritzogu.

Horrela, Euskal Presoak Euskalerriratzearen aldeko manifestazioa deitu dute Herri Batasunak, EAK eta IUK Euskal Presoak Euskalerriratzearen Aldeko Platformarekin batera. Manifestazioa larunbatean, martxoak 6, eguerdiko 1ean Plazatik irtengo da.

Elgoibartar guztion presentzia oso garrantzitsua da. Beraz, bertan elkar ikusiko dugu!

**GUZTION ARTEAN LORTU  
EGIN BEHAR DUGU!**

**Elgoibarko Herri Batasuna**

## EAJ/PNVko Uri Buru Batarraren unannestua

Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformaren jarreraren aurrean eta martxoaren 6an Elgoibarren Lizarragaraziko akordioa sinatzen duten talde politikoek (EARPNV, EH, IU-EB eta EA) antolatutako manifestazioaren aurrean, EAJ/PNVko Uri Buru Batzarrak ondoko manifestua argitaratu nahi du:

1.- EAJ/PNVko Uri Buru Batzarrak, 96/11/29an talde politikoetako eta Senideak taldeko ordezkariak sortutako presoen aldeko udal komisioa sostengatzen du.

2.- EAJ/PNVk Elgoibarko presoen egoeraren hobekuntzarako egiten diren ekitaldiak komisio honek antolatu beharko lituzkela uste du.

3.- Honela, EAJ/PNVk presoen inguruko gaian erreferentziazat dugun Euskal Herriko Presoen Komisioak antolatzen dituen ekitaldien alde egiten du.

4.- Arestian esandakoa aintzat hartuz, presoen egoera aldatzeko nahia eta desioa azaltzen dugu. Bestalde, Uri Buru Batzar honen bitartez, ekitaldien antolaketa komisio honen esku uzten dugu, 1. puntuan azaldutako Presoen Aldeko Udala Komisioaren esku, alegia.

**Elgoibarko Uri Buru Batzarra**

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUT1TZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik, Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.





## Hazetari berriak BARRENen

Batzuek lagatako hutsunea beste batzuek bete behar izaten dutenez, Ainhoak eta Jaseonek BARRENen lagatakoa **Irati Agirreazaldegik** eta **Asier Orbeak** beteko dute. Irati eta Asier elgoibartarrak dira eta kazetaritzako azken urtea egiten ari dira Leioan. Beraz, aukera paregabea izango dute orain arte ikasitakoa praktikan jarri eta kazetari modura eskarmentua hartzeko. Ongi-etorri bioi eta ea zortea izaten duzuen zuon estreinako lanean.



- Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasle batzuk etorri zaizkigu ikasgelen egoeraz kexatzeko. "Lehenengo gelan sabaia apurtuta dago eta hirugarren gelan ura sartzen da leihotikan, plastikuekin-eta tapatzen saiatu diaz, baina bihar bezela konpondu arte ez da arazua desagertuko".
- Jubilatutako batek kexa bat luzatu nahi dio Elgoibarko Udadari: "San Frantzisko kalean, lurreko harriak apurtuta daude hainbat tokitan. Txuri-Beltz tabernaren parean esaterako, harria falta da eta orkatila bihurtzeko arriskua dago. Aspalditik dago horrela. Denbora pasatu da baina inork ez du konpondu".



- Emakutne batek deitu digu otsailaren 21ean Banco Gipuzcano parean bere autoa markatu zutela esateko. **BARRENen bidez, beste autoaren datuak eman eta oharra utzi zuen pertsona txalotu nahi du.** "Nire autoa Sierra urdina, SS 2770 X matrikuladuna da".

**441** *boki -ireeer.*  
**Anthistegui s.a.**  
 ZERAMIKAK

Erakuskela eta bulegoa:  
 Antonio Arrillaga, 6-8 behea  
 83 P. K. - 20870 ELGOIBAR  
 Tel: 943 74 33 44 74 06 92  
 Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:  
 Olaso industrialdea  
 Olasope, 5  
 20870 - ELGOIBAR  
 Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71

## EI A ESAN?



**Elena Yudego**  
**Yudego Farmaziakoa**

Martxoaren I etik aurrera Gipuzkoako farmazietan ezin da antibiotikorik eskuratu errezetarik gabe. Osakidetza arduradunek eta medikuek hartu dute erabakia eta farmaziako arduradunen oniritzia dauka. Erabaki honen zergatiak argitzeko eta henitarrok automedikatze dugun ohiturari buruz berba egiteko deitu diogu **Yudego farmaziako Elena Yudegori**.

- **Aurrerantzean ezingo da antibiotikorik eskuratu errezetarik gabe, ezta?** - Bai, hala da. Hala ere, betidanik ahalegindu izan naiz jendeari ulertarazten errezetarekin etorri behar dutela. Errezetarik gabe etorri izan direnean beste botika bat eman izan diet eta normalean, begi onez ikusten dute farmaziakoak esaten edo aholkatzen diena.

- **Zergatik erabaki hau?** Arrazoia begibistakoa da: gehiegikeriak egin izan dira eta askotan gaizki erabiltzen dira botikak. Behin eta berriz esaten zaio jendeari, gutxienez, 6-8 egunez hartu behar dutela botika, baina gehienetan 4 egunetan baino ez dute hartzen. Zertxobait hobeto sentitzen direnean hartzeari lagatzen diote. Baina ez gara konturatzen mikrobioak ez direla hiltzen eta egun gutxira mikrobiorik indartsuenak berriz agertzen dira.

- **Egia da jendea edozer eskatzera jaoten zaizuela?** - Bai, denetik izaten da. Pertsona batek burukomina edo hagineko mina kentzeko zerbait emateko eskatzen digunean, farmaziakoak zerbait ematen dio baina gauza konplikatua bat denean (tentsioaren gorabeherak, beharakoak, giharreetako mina...) medikura joateko esaten diogu.

- **Aspaldian gogor ari zarete automedikatze ohituraren kontra. Kontzientziatu al da jendea?** - Denetik piska bat. Batzuk bai eta beste batzuk ez. Guk, gure aldetik, ohitura horren aurka lan egiten jarraituko dugu, orain arteko bidetik. Piskanaka piskanaka egin behar den kontzientziazio lana da.

4.000 559694




**ARANBURU**

**BITXIDENDA**

Iaz bezala aurten ere zenbait eraztun eta belarritako erdi prezioan jarriko ditugu.

*Ez galdur aukera!*



**aHerritarren  
kolaboraziorik gabe  
ezingo litzaleke  
BARREN  
astero astero  
kaleratu".**

Ainhoa Lodoso

## "6 urte eta gero"

*Ainhoa Lodoso eta Jasone Osoro izan dira Barreneko lehenengo kazetariak. 23 eta 21 urte zituztela ekin zioten Elgoibarren inoiz ezagutu ez den erronkari.*

*lanerako gogoia eta gauzak ondo egiteko borondatea ziren langintza berriko oztopoei aurre egiteko zituzten erremintak. Biek esan digutenez, "lana ez da erraza izan baina elgoibartarron partaidetzari esker bidean aurrera egiteko zortea izan dugu; ondorengoentzat bide bat zabalik laga dugu behintzat". BARRENen bueltan izan duten adiskidetasuna eta eurek egindako lanak izan duen harrera ona dira, besteak beste, BARRENen ezagutu dituzten gauzarik pozgarrienak. Baina, Ainhoa eta Jasone bculoaz, 92ko abendutik bakoitzak zuen onena eskaini ostean, haize berriak hartzeko premia sentitu dute. Penaz lagako dute BARREN baina erronka berriei aurre egiteko irrikaz daude biak. Esker mila egin duzuen guztiarengatik eta ez ahaztu BARRENen beti izango dela norbait zuokin kafea hartzeko prest. Gaur zuek zarete erreportajeko protagonistak.*

**92**ko abenduan Ainhoa Lodoso BARRENen hasi zen lanean. Urte horretako ekainean kazetaritza ikasketak bukatu berri zituen. Beka bati esker Euskal Telebistan praktiketan aritu eta albistegietan 3 hilabetez lanean jardun ondoren, BARREN aldizkari berrirako kazetari posturako deialdiaren berri izan zuen. Azterketa gainditu eta lanean hasi zen, "lan munduan sartzea zen nire ilusioa, lanean hasteko gogo handia nuen. BARREN proiektu interesgarria iruditu zitzaidan eta gainera, euskaraz lan egiteko aukera ematen zidan. Telebistakoa baino lan egonkorragoa izan zitekeela iruditu zitzaidan eta profesionalki erronka handia zen". Jasone Osororen kazetari ibilbidea BARRENi estuki lotua egon da. Maite Rementeriarekin batera BARREN sortzeko proiektuan hartu zuen parte. 1993an astekariko kolaboratzailea izan zen eta uztailean, San Bartolome jaiei buruzko ale berezia prestatu zuen. Ordutik gaur arte izan dugu BARRENen.

### Hasiera gogorra

Ainhoarentzat eta Jasonerentzat hasierak beti dira gogorrak. Dena dela, inguruko jendearen laguntza ezinbestekoa izan zen, "gure artian oso ondo konpondu izan gara beti eta talde oso ona osatu dugu. Taldeko lana funtsezkoa da egin beharreko lana koordinatzeko". Jasonek esan digun bezala,

"norberak bere burua gai ikustea da hasieran gogorra". Baina bi kazetari hauek argi dute lana arinagoa bihurtzen dela gustuko denean eta ilusioarekin egiten denean. Hasierako erronkarik handiena erreferentzia falta izan zen. "Orduan Arrasateko herri aldizkaria eta beste pare bat baino ez zeuden Euskal Herrian, baina BARREN gauza berria zen bai elgoibartarrentzat eta baita guretzat ere". Ainhoak gogoan du nola hasi ziren hutsetik, "dena egiteko zegoen, bidea sortzea zen zailtasunik handiena. Eguneroko lanarekin, oztopoei aurre egin ez, gauzak ondo egiteko borondatearekin eta ilusioarekin hasi ginen. Zerotik hasi eta etxea eraikitzea bezala izan zen, asteroko aleak ziren etxe horren adrelluak". Biek aitortzen dute hasieran BARREN ostiralero etxe guztietara ailegatzea zela helburu nagusia, "gero, denborarekin, itxura, diseinua eta edukiaren kalitatea lantzen hasi ginen". Aukeratu zuten bidea egokiena izan zen jakiteko, BARRENek duen arrakastaz eta onarpen sozialaz ohartzeko besterik ez dago.

### Herritarren parte hartzea eta laguntza

"Herritarren kolaboraziorik gabe ezingo litzateke BARREN astero astero kaleratu. Funtsezkoa izan da elgoibartarrak konturatzea BARRENeko parte direla. Irakurleak izateaz

**"BARREneko  
kazetariak  
loderrenod izan  
behar du: kultura, kirola,  
politika, argazkigintza,...  
denetik landu behar du"**

Jasone OSOrO



# "11 jarraitzlo ilusio berd clugu"

gain, sujetu aktiboak ere badira, eurak dira protagonistak: eskutitzak eta kexak ekarriz, esperientziak kontatuz... Iritzi artikulua bat idazteko jende bila ibili izan garenean, edo atal jakin bat osatzeko kolaboratzaileak behar izan ditugunean, jendeak oso ondo erantzun izan du". Jasonek ere badaki zer den herritarren partehartzea eta inplikazioa behar izatea. BARREn gehigarriak sortu zirenean (Kilibarren, Zahatrac Berri, Txiki-barren eta Kale zuloatik baserrira), herriko hainbat kolektiboren eta erakunderen kazioa beharrezkoak izan ziren. "Gehigarri hauei esker elkarlanean aritzeko eta mundu eta adin askotako jendea ezagutzeko aukera izan dut". 6 urte hauetan era guztietako jendea pasatu da BARREnetik eta, besteak beste, "erdaldunak ere integratu dituen produktua izan da". Ainhoaren ustez, BARREnek duen funtzio bateratzailea oso inportantea da, "talde, hizkuntza eta adin askotako jendea integratzen du". Jasoneren iritziz, izakera kontuak eragin handia du gai honetan, "erdaldunak eta euskaldunak ezberdinak gara izakeraz eta euskaldunoi gehiago kostatzen zaigu iritzia eman, bizipenak kontatu eta argazkietan ateratzea. Haurren eta zaharren kasuan, berriz, txikiei protagonismoa gustatzen zaie eta nagusiek norbaitek bere istorioak entzun edo irakurtzea eskertzen dute. BARREnek aukera hori eskaintzen die eta beraiek gogoz erantzuten dute". Ildo honetatik, Jasonek ez du ahaztuko urte

hauetan egin dituen hainbat elkarrizketa eta erreportaje, gazteekin eta zahar-reldn egoteko aukera izan dut eta guztien-gandik jaso dut betirako geratuko zaidan zerbait. Hasieran zenbait gaik beldur piska bat ere ematen zidaten, ezinduenak esaterako, baina gero konturatzen zara izugani ikasten dela. Profesionalki eta pertsonalki oso esperientzia aberatsa izan da".

## Presioak

Gizartean dauden tentsioek islada izan dute BARREn. Ainhoaren hitzetan, "pluraltasuna bermatu behar da arlo guztietan, kultura, hezkuntzan, politikan... Azken fmean, BARREN gizartearen ispilua da eta gizartean gertatzen diren gauzak jasotzen ditu". Kontua, oreka mantentzea da. Jasoneren hitzetan, "elgoibartarrentzat garrantzitsua zer den aztertu eta kazetaritza irizpideak jarraitu ditugu beti. Presioak egon direnean, muturretatik etorri izan dira eta horrek esan nahi du gu erdian ibili izan garela. Gainera, ondo dago jendeak interesa azaltzea, azken batean, BARREnek herrian duen oihartzunaren islada delako hori".

Hankasartzeak ere izan dira urte hauetan. Lana % 100ean 'perfektoa' izatea ezinezkoa da eta hankasartzeak egon daitezkeela onartu egin behar da. Ainhoaren ustez, "hankasartze bat egiten duzunean, kazetari bezala ez duzula maila eman konturatzeak ematen du mina". Bitxikeriarik ere bada:

"behin, erretratu zahar batean, Elgoibarko Parrokoa izandakoa agertzen zen. Prisaka ibilizten garenez, erretratua ekarn zidanak idatzitako testuan Parrokoa beharrean 'Pakorro' irakurri nuen nik eta halaxe agertu zen aldizkarian".

## Lagun IldRdidR

Lankide soilak baino lagunak izan dira Ainhoa eta Jasone. Ainhoaren ustez, onerako eta txarrerako izan da erlazio hau, "momentu batzuetan lagunak garela ahaztea komeni da eta arduraduna denak bere papera bete behar du. Baina alde positiboak gehiago dira eta Ianerako giroa askoz atseginagoa da". 6 urtetan BARREn Ian egiteak gauza asko irakatsi die bie. "Herri komunikabide bateko kazetariak 'todotere' izan behar du, kultura, kirola, politika, publizitatea, argazkigintza,... ezagutu behar ditu, jendearekin harremanak edukitu... etab. Lanbidea ezagutzeko ere baliagarria da horrelako lan bat, sekulako esperientzia da, nahiz eta askok ez duten kazetari-lan seriotzat hartzen. BARREnek Elgoibarko ekintza guztiak bizitzeko aukera eman digu eta gure bizitza kulturala izugarri aberastu da".

Ainhoak eta Jasonen ilusioz ekin zioten BARREni. Ereindako haziak eman du fruitua. Orain, proiektu benien aurrean, etapa berri bat hasteko ilusioz daude berriz ere. Zortetik onena opa diegu bie.



**VIAMOAK S, EMAKUIVE  
LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

# Etxeko-lanak neketsuak iruditzen al zalzkizu?



**JUANITA OSORO**

64 urte, etxekoandrea

Bai. Etxeko lanak oso zailak dira eta inork ez du egiten duzun lana kontuan hartzen. Gainera, etxeko lanak ez dia inoiz amaitzen, beti dao zerbait eitzeko.



**JOSE IGNACIO ARCE**

49 urte, mekanikoa

Zailak izaten dira, konstantzia handia eskatzen baitute. Emazteak egiten ditu baina ni saiatzen naiz laguntzen; erosketak eta oheak egiten ditut.



**TOÑI CABALLERO**

34 urte, bankaria


Nire kasuan senarrak mahaia jartzen du, bere arropak jaso, plater garbigailua martxan jarri... eta horrelako gauzetan laguntzen dit, baina niri lan gehiago egitea tokatzen zait.



**ANA ARTHE**

39 urte, administraria

Ez dira lan zailak izaten, baina bai neketsuak. Derrigorrez egin behar direnez, azkenerako karga bat bihurtzen dira. Neretzat etxeko lanik gustukoena erropak esegitzia da.



**MARIA JESUS INSAUSTI**

42 urte, administraria

Azkenerako ohitxu itxen zera eta ez zaizkit oso astunak iruditzen. Gitxien gus-tatzen jatan etxeko lana plantxatzia da.



**JOSE AMADO**

55 urte, jubilatua

Zailtasuna daukate baina egiteko moduko lanak dira. Ni jubilatuta nago eta egiten ditut etxeko lanak, batez ere lan astunenak eta neketsue-nak, emazteari laguntzeko.

SA

## 8 EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

**Martxoak 14, igandea Gasteizen (Mendizorrotza)**

**Autobusak: Goizeko 9:30ean PLAZA HANDIAN**

### IZENA EMATEKO:

- o Herri Eskola
- o Herri Institutua
- o Mendaroko Ikastola
- o Elgoibarko Izarra

### PREZIOAK:

- o Otik 13 urtera: 500 pta.
- o 14tik 17 urtera: 700 pta.
- o 18 urtetik aurrera: 1000 pta.



Herri Institutua



Herri Eskola



Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Udala



# ARI EGIRA



4Ubre) 154\S\SO,Cc) 1.5,6a-)C-0.€ezA2

## BASURCO inmobiliariakoa

- Zenbatean erosi zenuen etxea? Familiako etxia da, gurasuena, beraz, zero pezeta; doan.
  - Inmobiliaria batek mobilitatea behar al du? Derrigorrez, kontaktuen aldetik batez ere.
  - Zein da zure ametsetako etxea? Mutrikun. Mendian eta itsasoan begira.
  - Etxea teilatutik egiten hasten direnetakoa al zara? Ez. Gauzak hasi eta bukatu, pausoz pauso, bere ordenean eta egoeran egin behar direla uste dut.
  - Lurra, lantzen duenarentzat ala ordaintzen duenarentzat? Erdian geratuko naiz. Baina minimo bat, bakoitzak bere etxia, propioa, eukitzia lortu biharko litzateke.
  - 'Casablanca' ikusi al duzu? Askotan hasi naiz, baina sekula ez dot amaitu. Telebistako pefikulak ikusteko desastre bat naiz.
  - Etxean jokatzun sentsaziorik duzu? Ez. Nik lan kanpua egiten dot eta etxian nauanian ez nao lanian.
  - Nolako bezeroak dituzue? Mota guztietakoak. Batez ere momentu honetan bikote gaztiak eta industriak.
  - Zein balore da zuretzat erabateko `ondasun inmueblea'? Transparentzia, guztiz garbia izatia, ezer ezkutatu gabe.
  - Lurra gu gara ala lurrean bizi gara? Bietatik apur bat. Lurrak gurekin zerikusi handia dauka: lurrian bizi gara eta lur barruan amaitzen degu.
  - Oinak lurrean dituen pertsona zara? Nik ezin dezaket esan, baina ahalegintzen naiz.
  - `Okupek' zure lana oztopatzen dute? Ez. Ez degu inolako arazorik izan sekula. Gainera, euren postulatatu batzuk onartu leikez. Onartu leike pertsona bakoitzak bizileku bat izateko eskubidea, besteak zapaltzen ez diren bitartean.
  - Nolakoa izango da etorkizuneko etxea? Etorkizuneko etxia bakoitzak bere bizileku propioa eukitzea izango da.
- Gaur etxe bat erostea lurrikara bat al da erosieentzat? Momentu honetan, zoritxarrez, bai.
- Bezeroak gustora al daude zuekin? Nik baietz uste det, nabiz eta berriak izan eta inmobiliaria munduan denbora gitxi eraman.


Arnaitz Gorriti

## 14, tr, oot




### ESKERTZA

1999ko otsailaren 26an, 79 urte zituela hil zen **TEODORA LARREATEGI ZENDOIA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### I. URTEURRENA

1998ko martxoaren 5ean, 84 urte zituela hil zen **MANUELA IRIONDO ZABALA**ren oroimenez **I. LIRILURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 6, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretanoi eskerrak ahlez aurretik.



# Euskal Presoak Euskal Herrirau lemapean manifestazio isila deitu dute biharko, hilak 6

Estraineko aldiz HB, EA eta IU alderdiek deialdi bateratua egin dute

**B**ihar, martxoaren 6an, larunbata, manifestazioa egingo da Elgoibarren "Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean. Eguerdiko 13.00ean Plaza Handian hasiko den manifestaldira joateko deia, HB, EA eta IU alderdiek batera luzatu dute lehendabiziko aldiz. Beraien esanetan, "Euskal gizarteak eskatu arren Gobernu espainiarrak ez ditu bere legeak betetzen. 1996ko urriaren 3an, herri ordezkartzaren gehiengoak onartu zuen akordiotik hasi eta Bilboko manifestaldi erraldoiraino, urtearen azken egunean herri guztietan egin ziren kontzentrazioak barne, Euskal Herriko hiritarrok hainbat ekintza egin ditugu helburu



*Espainiako Gobernuari legea betetzeko eskatu nahi diote larunbateko manifestazioarekin.*

honekin. Baina, Mayor Orejak eta bere gobernuak, presoek sakabanaketak adierazten duen txantaiari eusten diote. Legez kanpkoa eta gizagabea den

espexetako politikak aurrera darrai beraz". Egoera horrela dagoenez, euskal hiritarrak beraien jarrerara mobilizatzailearekin eta zorrotzarekin bide berriak jorraztera animatu nahi dituzte. Beraz, manifestua sinatu duten hiru alderdiek zera eskatzen dute: "Estatuak bere legea bete dezala eta *Euskal presoak Euskal Herrira* lema errealitate bihurtzea". Beraz, HB, EA eta IU alderdiek, bihar, lanbata, eguerdiko 13.00ean Plaza Handian hasita egingo den manifestazio isilera deitu nahi dituzte herritar guztiak. "Ea Bilbon egin eta sentitu genuena gure herrira ekartzen dugun".

## IEUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

# MANIFESTAZIO ISILA

**Eguna: Martxoak 6, laninbata**

**Ordua: 13:00ean**

**Lekua: Elgoibarko Plaza Handian**



Herri Batasuna





## Artazo Baserriaren Aldeko Banordearen eskerrak

Artazo baserria erre zenetik asko izan dira diruz edo beraien ekintzen bitartez laguntza eskaini duten pertsonak, taldeak, zein erakundeak. Orotara ia 5.100.000 pezeta bildu dira, bai errifekin eta baita beste era batzuetako aportazioekin ere. sieran 3 milioi eskuratzea zen beraien helburua eta herriaren erantzuna uste baino hobea izan da, gehiagora iritsi dira. Urtarrilean hasi ziren baserri berria eraikitzeko lanetan eta gabonetarako bertan bizitzen jartzeko asmoa dauka Artazo baserriko sendiak. Beraz, Artazo Baserriaren Aldeko Batzordeak, laguntza eman duten guztiak eskertu nahi ditu, beraien lan eta aportazio eskerga txalotuz.



## Emakume elgoibartarren erakusketa inauguratu zuten joan den ostiralean

Haizea Emakume Taldeak antolatutako erakusketa inauguratu zuten Kultur Etxean joan den ostiralean, hilak 26. Herriko zenbait emakumeren arte-lanak ikusgai izango dira bertan martxoaren 14ra bitartean. Artea eta emakumea bat eginez, Chari Gomez, Esmeralda Zapparoli eta Ainhoa Lodosoren argazkiak; Carol Sanchez eta Bea Ansolaren margoak eta gurutze-puntuari hainbat emakumek egindako lanak daude erakusketan. Haizearen ikastaroetan egindako 'papel-matxe' eta tridimensionalak ere ikus daitezke bertan. Erakusketa egunero zabalik egongo da, astelehenetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

## Kilometroak 99ko materiala Gorostiza liburudendan salgai

Aurtengo Kilometroak 99 jaia Oreretan egingo da eta Ikastolen aldeko jaiaren antolatzaileek materiala jarri dute salgai gure herrian. *Gorostiza* liburu denda izango da salmenta puntua. Ibertan, orain, neguko arropa dago, galtzerdiak, buff-ak, sudaderak eta kamisetak, hain zuzen ere. Eskarien arabera material berria ekarriko dute eta, berriki, udaberd eta udako arropa izango da *Gorostizan*. Kilometroak 99ko materiala eskuratu nahi duenak beraz, dendara jo beharko du.

## Thafike dentsitatearen azterketa egiten dthardute Eigolbarren

Asteazkenean, hilak 3, N-634 errepideak Elgoibarren daukan egoera aztertzen ari den enpresako langileek, bertatik zenbat ibilgailu pasatzen diren neurtzeko tresnak jarri zituzten hainbat puntutan. Sigmako, Madalako eta Txankakuako zenbat auto sartu eta ateratzen diren neurtzea da asmoa. Honela, automobilen trafikoa nolakoa den jakin ahal izango dute eta trafikoa gure herrian sortzen dituen arazoak konpontzen saiatuko dira.

## Zuhaitz Egunean 20 astigar landatu zituzten Mintxetan

Otsailaren 27an, Zuhaitz Egunean, 20 haur inguru bildu ziren Mintxetan. Bertan elkartutako gaztetxoek 20 zuhaitz landatu zituzten aparkaleku ondoko berdegunean. Elgoibarko ikastetxeetako haur denak zeuden zuhaitzak landatzera gonbidatuta, hala ere, 20 baino ez ziren agertu. Landatutako zuhaitz mota astigar arrunta izan zen, Euskal Herrian oso ohikoa. Zuhaitzok Diputazioak Urnietan daukan Arizmendi mintegitik ekarri zituzten. Landaketan parte hartu zuten haurrek beraien izenak zuhaitzetan zintzilik jarritako txarteletan idatzi zituzten. Zuhaitzen inguruko eta, bereziki, astigarri buruzko informazioa ere banatu zitzaizen parte hartzaileei. Azkenik, zuhaitzek nork landatu dituen gogoratzen



dutela esan zitzaizen haurrei, laztanduz gero landatzailea sentitzeko gai direla, alegia. Hurbildu ziren haur guztiek beraien lanaren ordaina jaso zuten eta hamarretako txiki bat dastatzeko aukera izan zuten.

OTSAIAREN 26KO UDAL PLENOA

• **Aisialdirako gunea jarriko dute Sailobenten**

Udalak Sallobente auzoan aisialdirako gune bat ezarriko du. Proiektuaren arabera bertan, erretokiak mahaiak, aulkiak eta komunak egongo dira. Udala eta gune berria jarriko den Iurren jabea akordio batera heldu dira eta hitzarmenaren arabera, terrenua erabilera publikokoa izango da. Sebastian Irustak utzitako lur-sailean, Sallobenteko jaietan aparkalekua egoten da, baina urteko gainontzeko egunetan ez da erabiltzen. Beraz, bizilaguentzat aisialdi area egitea erabaki zuten. Terrenuaren jabeak ez du lurrak uztearen truke dirurik jasoko eta hasieran urtebeterako Iaga badu ere, ondorengo legegintzaldian hitzarmena berri egin ahal izango da. Gillermo Garate, Elgoibarko alkatearen esanetan, "San Pedron dagoenaren antzeko aisialdi gunea sortu nahi dugu Sallobenten. Horretarako, mahaiak, aulkiak eta erretokiak jarriko ditugu, jendeak kanpoko giroan ondo pasatzeko", Akordioa duela egun gutxi sinatu dute eta orain Udalak alorraren prestaketa proiektua aztertu behar du orain. Honela, Aisialdi gune gehiago izango dugu Elgoibarren, berritarrek beren denbora libreaz goza dezaten, ingurune natural batean.

**Eguneko lentroaren ardura Sartu enpresari ematea erabald du Udalak**

Bestalde, alkateak gogor salatu zuen PPko zinegotziaren jarrera biktimista

*Ostiralean(otsailak 25) izan zen plenoan Eguneko Zentruaren biderapena, Udaletxeko 1998ko aurrekontuaren likidazioa eta Partidu Popularraren idatzia*

*izan ziren gai nagusiak. EAJ eta PSE-EE alderdien arteko eztabaidaren ostean Eguneko Zentruaren biderapena Sartu enpresak eramatea onartu zuten..*

**E**guneko zentrua ireki zenetik, Sartu enpresak zeukan bere gestioaren ardura. Ostiraleko plenoan EAJ, EA, HB eta IU alderdien onespenerekin eta PSE-EE eta PPren ezezko botuekin, Zentruaren ardura enpresa berari ematea onartu zen. Hiru enpresak aurkeztu zuten, Eguneko Zentrua kudeatzeko eskaria, EDEK, Sartuk eta Eulenek, hain zuzen ere. Baina Udaletxeko Ongizate Saileko arduradunek Sartu enpresa aukeratu dute, eskatutako baldintzak hobekien betetzen dituelako. Jose Manuel Herrero, PSE-EEko zinegotziak bere ezadostasuna adierazi zuen, bere ustez Eulenen enpresaren aukera egokiagoa delako. "Beste bi enpresek baina kalitate hobea dauka Eulenen proposamenak". Gainera, gutunazalake irekitzeko orduan irregulartasunak izan direla adierazi zuen Herrero. "Alderdi politikoetako ordezkariak ez zitzaizkion ekitaldi honetara joateko deirik izatu". Gillermo Garatek, alkateak, errua onartu zuen, baina bere esanetan, "Legealdiak irau duen lau urteetan deia zabaldu arren inor ez da azaldu". Hala ere, Herrero alkatearen adierazpena ukatu egin zuen, beraz gutunazalake irekieretara joateko ohitura duela esanez. Gai beraren inguruan, Ongizate saileko batzorde burua den Belen Elorzak esan zuen, "Erabakia Ongizate saileko teknikariek hartu dute eta beraiek dira zer behar dauden eta enpresaren perfil egokia zein den dakitenak". Beraz, ez zuen zuzentzat hartu PSE-EEko zinegotziaren jarrera. Bere ustez, izaera kritiko hori interesek partikularrek eragindakoa izan daiteke. Baina Jostl Manuel Herrero ukatu egin zuen beste enpresak aukeratuak izan zitezkeen inolako arrazoirik zuenik. 1998ko aurrekontuen inguruan HB eta IUK beren ezadostasuna adierazi zuten. EA eta



*Udaletxeko Ongizate Saileko arduradunek Durangoko Sartu enpresa aukeratu dute baldintzak hobekien betetzen dituelako.*

EAJ beniz, azken lau urteotan egoera ekonomikoak hobera egin duela esan zuten. Gerora begira baikor azaldu ziren, politika ekonomikoa mantenduz gero legealdi berrimko bide honetik doazela esanez.

**Alkatearen kritika PPko Aviani**

Bestalde, Juan Carlos Avia'n PPko zinegotziak aurkeztutako mozioak liskarra sortu zuen plenoan. Izan ere, bere idatzia osatu gabe zegoen eta Gillermo Garatek aukera hau aprobetxatu zuen Alderdi Popularreko zinegotzia kritikatzeko. Aviaz aurkeztutako mozioan suetenari eta kale borrokari buruz hitz egiten zuten, baina idatzian ez zen plenoan eztabaidatzeko inolako proposamenik agertzen. Alkateak, idatzia plenoan aurkezteko erabakia hartu zuen, honela, Avian kritikatu. Elgoibar herriaren irudi ona zikintzea leporatu zion eta baita bere jarrera biktimista kritikatu ere. "Pleno batera etortzeko babesa eskatuz Ertzaintzari egindako deiak, Arartekoan egindako apartzioa egoeraren irudi irreal bat sortzeko besterik ez dute balio. Onartezina da, zure alderdian gora esziteko duzun nahiagatik Elgoibar Kosovo gisa erakustea", esan zion Garatek. Bukatzeko, aholku bat eman zion PPko zinegotziari: "Joan zaitez Elgoibartik Avian jauna!"





VYAn.,7

VfrINVIV



JOSE LUIS LIZARRALDE:

## "Baserriko esniak koipea dakalako jendiak kajakua hartzen dau"

*Jose Luis Lizarralde duela 52 urte jaio zen Agarre baserrian eta bertan bizi da gaur egun ere. Egunero aritzen da baserriko lanetan eta kalera ere jaisten da esnea saltzera. Gurasoak eta aiton-amonak ezagutu ditu esnedun Jose Luisek, eta berak ere urte luzean dihardu langintza honetan. Guk, gero eta esnedun gutxiago dagoen honetan gure artera ekarri dugu bere lanbidearett gazi-gozaok jakiteko asmoz.*

**- Noiztik daukazue behiak baserrian?**

Baserrixan nik betidanik ezautu ditzut behiak. Beti ere esnetarakuak, oke-latarako inoiz ez dou ganaurik euki.

**- Nola jesten dituzu behiak?**

- Lehen eskuz jesten genduzen behiak, baina baserrixan ere jende gehixao zauan eta errezaio moldatzen ginan. Oin makinia dakagu behiak jesteko baina nere ustez garbitxasun aldetik eskuekin hobe da. Egunian bi

bidar jesten ditzut, nik bakarrik, gabian da goizian. Gabian erretiratzeko orduan, zazpirak aldian-edo, eta goizian ere ordu horretan. Ahal izanez gero ordu berian jetsitxa hobe izaten da.

**- zenbat litro ateratzen dituzu?**

- Gero eta gutxiao. Kalian danak medikuanera juten dia eta koipia ez hartzeko esaten dienez Gurelesakua hartzen dabe. Beste batzuk komodidadiagatkik lagatzen diue baserriko esnia hartziari. Horregatik, oin 60 litro inguru bakarrik ateratzen ditzugu. Hala ere, oindiok badao jendia gure esnia hartzen dabana. Batzuk koipe asko dakala eta gorputzari kalte itxen diola esaten dabe. Beste batzuek, esne osua hartu bihar dala kaltziva hazurrentzat ona dalako. Danerakuak entzuten dia eta bakoitzak ikusiko dau zeri in bihar dion kaso.

**- Nora saltzen duzu esnea?**

Urte askuan bezero fi-juak dakauz. Goizian kalera bajatzen naiz esniakin eta klientieri etxeraino eruaten diuet esnia. Lehendikan asko bajau da eta oin ez da esne hau asko eruaten. Hala ere, oindiok badaude banaka batzuk hartzen dabenak eta eurentzat esne hobetik ez dao.

**- Lehendik hona asko aidatu al dira zure ibilerak?**

- Bai, asko. Lehen oinez bajatzen ginan eta ambientia

ederraua zan. Marmitek asko pisatzen zeben eta astuan bajatzen ginan. Bidian batakin eta bestiakin berbetan itxen genduan eta baserritxarren artian komunikazio gehixoa zauan. Oin tristiaua da, bakoitza bere kotxian sartu eta esne partiziva ere prisaka itxen dounez, ixa ez gera ikusi ere itxen. Lehen beti izaten zan ipuinen bat auzokuekin, oin zeozer pasau ezker, askotan azken ordura arte ez gera enteratzen.

**- Esnearen produktzioa asko jaitsi al da?**

Klaro baietz. Pentsau zenbat bajau dan produktziva, gero eta esnedun gutxiago gaudela. Bailara honetan hiru edo lau, eta bes-tietan ere antzera izango da.

**- Esnearen prezioak izan al du eraginik horretan?**

Kalera saltzen dan esnian preziva oso ondo dao, baina Gurelesara saldutakua-gaitxik oso diru gutxi ematen dabe. Guk sobre dakagunian bakarrik ematen diou zentralari. Eta kalekuari eskerrak, bestela, Gurelesak ematen daban diruelcin ezin leike ezer in. Kalian 18 duro pagatzen dabe eta zentralian 20 pezeta bakarrik, sekulako aldia dao.

**- Kupoarekin izan al duzue inoiz arazorik?**

Guk eruaten doguna baino gehixao dakau, eta generalian ez geranez ailegatzen, ez dou sekula problemarik euki, beti bajutik ibiltzen gera.




# Esne kupoak

N

*Europaren sorrerarekin batera, esnearen produkzioa kontrolatzeko beharra zegoela ikusita, kupoak sortu zen. Beraz, haseritar bakoitzak esne kupo zehatz bat izango du eta hortik pasatuz gero, isuna jarriko litzaioke.*

**K**upo hauek bi eratakoak izan daitezke: bata zuzenekoa, esnea kalera saltzen dutenei jartzen zaiona. Bestea, berriz, zentralera saltzeko ipinitakoa. Hemen behi pintoeak eta friso-eiek daukate kupoak, esnetarako behiek hain zuzen ere.

Baserritarrak eta esnedunak Europan sartzearekin batera, esne kuotak eta esnearekin lotutako beste zenbait kontzeptu agertu ziren, besteak beste, esne kupoak. Beraz, esnetarako behiak zituztenei kupo zehatz batzuk ezarri zitzaizkien. Denboraren poderioz, batzuek esnea ateratzeari utzi diote eta beste batzuek beraien esne kupoak baino gehiago behar dute. Beraz, azken urteotan zenbait aldaketa izan dira alor honetan. 1992an esne kupoak uzteko aukera sortu zen Madrilgo Ministerioan. 1996an Eusko Jaur-laritzan ere aintzakotzat hartu zen. Horren arabera, Elgoibarko bost baserrik beraien esne kupoak saldu zituzten eta hauek administrazioaren esku gelditu ziren. Bost baserri



*Gaur egun Elgoibarko hoge baserritan baino ez dituzte esnetarako behiak.*

horietatik lauk zentralera saltzen zuten esnea eta bosgarrenak kalera. Guztien artean 147.706 kilo produzitzen zituzten. Esne kupoak uzteko arrazoi nagusia honako hau da: baserriko titularrak sarritan edadetua izan ohi da, eta atzean lanbideari jarraituko dion inor ez baldin badauka, esne kupoak saltzea beste irtenbiderik ez du izaten. Gainera, esnedunen lana oso lan lotua da.

1998an, 20 baserri izan ziren esne kupoak utzi zituztenak, guztira 438.268 kilo produzitzen zituzten, bai kalerako eta baita zentralerako ere. Baina kontuan hartu behar da kalerako esne kopurua txikiagoa dela beti. Hasi-eran, esne kupoak uzten zituztenek ez zeukaten diru laguntzak jasotzeko aukerarik. Orain, ordea, administrazioa esne kilo horien jabe egiten da eta baserri-tarrei ordaindu egiten die.

## Esnea 20 baserritan Elgoibarren

Gaur egun Elgoibarren 20 baserritan daude esne behiak. Horietatik lau baserrik zentralera saltzen dute, hiruk kalera eta gainontzekoek bietara. Denera 891.497 kg. produzitzen dituzte. Gainera, iaz esne kupo gehiago behar zituzten bi baserriren eskariak jaso ziren. Baserri batean ikuilu berria jarriko dute eta 300.000 kilo gehiago produzitzeko asmoa daukate. Beraz, ekoizle txikiak piskanaka desagertuz joango dird eta esne asko produzitzen dutenak baino ez dira geldituko. Bost baserri inguru izango dira hauek, indartsuenak. Espainian behi bakoitzak urtean 4.200 kilo produzitzen ditu. Baina, gaur egun, egoera onenean dauden ikuiluetako behiak 8.000 kilo produzitzera iristen dira, Europako mailara, hain zuzen ere.

## EGUNGO ESNE EKOIZPENA ELGOIBARREN

	BASERRI KOPURUA	SALMENTA MOTA	ESNE KOPURUA/KG.	BATEZ BESTEKOA/KG.
	4	Zentralera	283.286Kg.	70.822Kg.
	3	Zuzenekoa	33.422Kg.	11.141Kg.
	13	Mistoa		
		e zentralera	389.368Kg.	29.951Kg.
		. zuzenekoa	185.421Kg.	14.263Kg.
<b>Guztira</b>	<b>20</b>		<b>891.497Kg.</b>	



# AGARRE baserria

*Orain dela gizaldi asko bizi izan ziren Agarre baserrian lehendabizikoz Jose Luis Lizarralderen arbasoak. Bere aita, aitita, birraitona... gttztiak Agarre baserrian bizi izandakoak dira. Urte askotako historia dauka, beraz, San Roke auzoko baserri honek.*

**B**aseritik ateratzen duenetik bizi da Jose Luis Lizarralde bere gurasoekin baserrian bertan. "Gu, hemen, aitxa, ama eta ni bizi gara. Beste anaia batek kalian lan itxen dau baina egunero baserrira erretnatzen da eta bere andria asteburuetan etortzen da. Umiak txikixak dakaz eta astia Mendaron pasau ostian astebukaeran etortzen dia". Kanean esnea eta ortutik ateratzen dutena saitzen dute eta horretarako lan asko egin behar izaten da. Hala ere, lana gogoz egiten dute baserrian, "guk hau ikusi dou eta besterik ez dounez probau, gustora itxen dou lana". Gurasoak edadean aurrera doaz eta anaia gazteenak asteburuetan bakarrik laguntzen du, "baina ia lan guztia orain nik eitxen dot". Hala ere, Jose Luisi ez zaio baserriko lana horren astuna iruditzen, "ni hola-xe ohitxu naiz eta normala iruditzen jat". Kanean, barazkiak dendetan saltzen dituzte, eta hortik, eta esnearen salmentatik ateratakoa nahikoa izaten da beraien mantenurako. "Fandlixia euki ezkeror orduan beste gauza bat izango litzake, baina ni bakarrik naonez, neuretzako lain ateratzen dot".

## Esnea eta barazkiak

Negutegirik ez daukatenez kanpoan hartu daitezken barazkiak landatzen dituzte Agarre baserriko ortuan. "Esnetarako ganauekin nahiko lan dakau eta inbernaderua ipiniz gero horretara dedikau biharra dao. Guk berduria daonian batzen dou eta ez badao ere berdin izaten jaku".

Hala ere, barazkiekin ateratzen dituzten irabaziak beraien onerako dira. "Produktzio askorik euki ezian, esniak ez dau diru askorik ematen eta ezin da inbersio haundirik in. Esaterako, bakteriak hiltzeko makiña bat ekartziak gasto haundixa ekaniko luke. Gurian 6 behi bakarrik daoenez, holako bat erostiak ez digu gastua kompensatzen". Agarre baserrian bertako produktuak



## Aurten barazki gutxi

Jose Luisek ortuan porruak, azak, letxugak, eskarolak, espinakak eta beste hainbat barazki landatzen ditu, sasoiaren arabera. Ondoren, Elgoibarko denda batzuetara eramaten ditu bertan saltzeko, eta etxean ere, bertako barazkiak jaten dituzte. Aurten, hala ere, oso gauza gutxi omen dago. "Udazkenian eurixak goizao jo zaban eta ezer ipintzerik ez zauenez, oso berdura gutxi atera dou".

kontsumitzen dira. Esnea eta barazkiak batez ere. Jose Luisek esan digunez "ni etxian oso esnezalia izan naiz eta baserriko esnia asko hartu izan dot beti. Batzuek kaltegarria dala esan arren, neri, esneki pila bat hartuta sekula ez jata ezer txarririk pasau". Lehengo garaietatik hona gauzak aldatu egin dira, batez ere, teknologiak aurrera egin duelako. "Orain lehen baino arina da lana, makinekin eta luna ipinitxa ez da hain astuna itxen". Baina baserrian badira sekula aldatu ez diren gauza batzuk, eta aurrerantzean ere inoiz aldatuko ez direnak. Jaiegunetan eta oporretan ere lana egin behar izaten dute baserritarrek. "Oporrik ez dot itxen, baina usau ez dotenez ez dot inoiz faltan bota. Gaztetan inoiz jua nintzan kanpora baina oso gutxitan".

## AGARRE

**Auzoa:** San Roke

**Bizilagunak:** Jose Lizarralde

(82 urte), Petra Leiaristi (82 urte), Jose Luis Lizarralde (52 urte) eta Santiago Lizarralde (44 urte).

**Lur hedadura:** 13,5

hektarea.

**Errenta** 6 behi

esnetarako, pintak eta baratza.

# BillidETA gainean

## ELGOIBAR-SORALUZE-HARAKATE-ELGOIBAR



**Distantlia:** 14km.

**Denhora:** 2 ordu

**Zalintasuna:** erdikoa

*Zelandira iristen garenean berehala izango gara berriz gure abiapuntuan, Elgoibarko Plazan.*

- **1** Elgoibarko Plaza Handitik atera eta Txankakuako zubian ezkerrera hartuz, Maltzaga aldera joango gara. Errotondan ezkerrera hartu eta handik Soraluzerantz joko dugu karreteraz.
- **2** Soraluzera heldutakoan Gilaneko zubitik herrira sartuko gara. Udaletxe paretik pasatu eta Plaza berritik Etxaburueta kalean gora Tren Geltoki zaharraren paretik igarota San Andres auzora iritsiko gara.
- **3** Asfaltozko bidetik, aldapan gora eginez, Urkiazelaiko txaboletara helduko gara. Handik, Karakateko antenara iritsi artean jarraituko dugu,
- **4** Karakateko gurutzearen ondotik pasatzen den mendiko pistan behera Berasetara iritsiko gara.
- **5** Berasetatik, asfaltozko bide normalari jarraituz San Rokera jaitsiko gara eta Zelandi baserritik behera herrira iritsi artean jan aituko dugu, gure ibilbidea Elgoibarren bertan bukatuz.



*Ibilbide honek oso aldapa gogorrek ditu. Gorako maldak zorrotzak dira eta baita beherakoan jaitsi beharrekoak ere.*

**5.2511<sup>4</sup>**  
*-skstqcm*  
**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Franizisko, 49-1 Tel: 943 74 11 89




**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

**5CM**



Juan Mugerza, 3 7 943 74 12 56 - jmobilaj 609 53 23 83



Maiden Etxaniz 24 urteko elgoibartarra da. Duela urtebete Soziologia ikasketak bukatu zituen, Leioan. 1997ko abenduan Euskal Kulturaren Batzarrean (EKB) hasi zen lanean, hasieran unibertsitateko arduradun bezala eta geroago helduen euskalduntze eta alfabetatze lanean. Gaur egun, EKB-k Euskaldunon Egunkariarekin eta euskaltegiekin batera martran jarri berri duen euskaraz irakurtzen trebatzeko kanpainaren koordinatzailea da.

# MAIDER Etxaniz

## "Euskararen no gmalkuntza eta berreskallrapenerako momentu politiko egokian gaude"

— Nolatan sartu zinen EKBn?

Batez ere, momentu hartan arazo pertsonalak zirela eta interesatzen zitzaidalako: nire ikasketak hirugarren mailara arte euskaraz burutu nituen, baina laugarren mailan gazteleraz ikasteko aukera besterik ez genuen. Hori dela eta, unibertsitatean euskararen alde borrokatu behar zela iruditzen zitzaidan.

—Zerk bultzatu zaituzte euskaraz irakurtzen trebatzeko kanpaina hori gauzatzera?

- Ideia EKBko Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze Lantaldean sortu zen. Azken urteotan jendea euskalduntzen ari zela ikusten zen, bestalde, euskaldun askok euskaraz irakurtzeko zailtasunak zituela konturatu ginen. Zailtasun hori gaintzeko asmoz, Euskaldunon Egunkariari ideia proposatu genion eta honek

bere onespina eman zigun. —Zein da kanpainaren helburua?

- Kanpaina, euskalduna **izaki** gazteleraz alfabetatu direnei zuzendua dago. Euskaraz dagoen liburu bati, euskaraz egoteagatik beldurra dion jendeari zuzendua dago. Helburua, jende horri euskaraz irakurtzea erraza dela erakustea da, ohitura bakarrik falta dela ikustaraztea.

- Kanpainak ba al dauka lelorik?

Kanpainaren leloa "Euskaraz? Inoiz baino errazagol" da.

— Nola baloratuko zenuke Euskararen egoera Euskai Herriko Unibertsitatean?

- Euskalduntze plangintza ez zait batere ausarta iruditzen. Hutsune handiak daude: plangintza batek helburu eta data batzuek izan behar ditu eta plangintza

horrek ez ditu ez helburuak, ez baliabideak, ezta datak ere argi zehazten. Nire ustez ongi programatu gabe dago. Plangintza horrek esaten du unibertsitatea eu.skaldunduko dela, baldin eta baliabide ekonomikoak heltzen badira. Gainera, hiru urte plangintzarik gabe egotea ez zait serioa iruditzen.

—Euskaidunak unibertsitatean diskriminaturik gaudela uste al duzu?


- Bai, oso diskriminatuta gaude. Gaur egun lehen hezkuntzan eta irakaskuntza ertainetan jende gehiagok aukeratzen du euskaraz ikastea eta eskariaren arteko ezberdintasun handia dago. Euskal Herriko Unibertsitateak ez dio eskariari aurre egiten. Orain eskari honi erantzun diezaioke, baina hemendik urte batzuetara eskuetatik joango zaio, baldin eta ez badu euskaraz ikasteko aukera hori eskaintzen. Jende askok hirugarren maila, laugarrena..... ikasgaiak gazteleraz izango ditu.

—EKBk bere helburuak bete dituela ikusita talde bezala desagertzea erabaki du. Etorkizunean euskararen munduan lan egiteko esperantzarik ba al duzu?

- Irakurzaletasunaren kanpaina bukatu arte iraungo EKBk, apirilera arte. Hori bukatu artean gustatuko.. J,itzaidake euskararen munduan lan egiten jarraitzea. Mundu hau polita eta interesgarria da, eta egiteko asko dago. Gainera, orain euskararen normalkuntza eta berreskurapenerako momentu politiko egokian gaude, eta indar guztiak bildu behar ditugu euskara bultzatzeko.

### RESTEEK ESANA

"Euskararen alde lan egiteko gogoa eta ilusioa osa dosi altuan duen lankidea da,"  
OLATZ OSA, EKBko idazkari nagusia.



•••• JAIOTAKOAK ••••

• Aitor Kortazar Astigarraga, (Otsailak 4)

• Nerea eta Maider Perales Perez, (Otsailak 17)

• Javier Del Rey Eizagirre, (Otsailak 15)

• Ifiaki Mugika Sasiain, (Otsailak 18)

• **a** • EZKONDUTAKOAK ••••

• Guillermo Melica eta Maria Leire Urbiola Arriola, (Otsailak 20)

•••• HILDAKOAK **ta** ••••

• Franciso Polo Fuerte, 73 urte (Otsailak 3)

• Isabel Mendizabal Zubiurre, 85 urte (Otsailak 6)

• Jose Maria Larrinaga Burgoa, 65 urte (Otsailak 6)

• Juana Bastida Urain, 77 urte (Otsailak 6)

• Miguel Izagirre Anizabalaga, 62 urte (Otsailak 17)

• **e** Andresa Totorikauena Azpiazu, 83 urte (Otsailak 21)

• Teodora Larreategi Zendoia 79 urte (Otsailak 26)

**m<sup>a</sup> Jesus Garcia Diaz de la Vega**

**(1930-1986)**



• 1930eko azaroaren 10ean jaio zen Abanto-Cierbenako El bazaleko auzoan. 5 anai-arreba ziren, bera laugartena. Jaiotako etxe berean pasa zuen gazte denbora ikasketak eta baratzeko lanak eginez.

• 10 urterekin bizimoduari aurre egiteko etxetik alde egitea tokatu zitzaion. Gernika eta Algortako baserrietan ibili zen zerbitzu lanak egiten.

• 15 urte zituela Eibarko Arrate bailarara etorri zen, hemen ere baserriko lanak egitera eta bizkor moldatu zen egoera berrira.

• Gogoko zuen Arratera joatea, eleiza eta bertako ohiturak jarraitzea. Bere auzo bereko senargaia topatu zuen, eta Maria Jesusek urte batzuk zai egon ezkerro, berarekin ezkonduko zenaren hitza ernan zion.

• 18 urterekin Agapito Lopezekin ezkondu zen eta Mendaroko Belarzegi Goikora etorri ziren bizitzera. 3 alaba izan zituzten. Agapitoren gurasoak beraiekin bizi izan ziren. Denen artean fin lan eginez baserria aurrera atera zuten.


• Geroago Elgoibarrera etorri ziren bizitzera. Senarrak San Pedron egin zuen lan, eta 9 urtetan Bar Agapito taberna eduki zuen, gaur egun Bar Avenida dagoen tokian. Maria Jesus, langile amorratua, sukaldari trebea eta sinpatikia zen. Borondate onekoa eta sinismen handiko emakutnea bezala eza gutzen zuten herrian.

• Famili giroan jertseak egitea, jostea eta abestiak entzutea zituen gogoko.

1986ko urriaren 2an hil zen Ixori txikia' bezala 56 urterekin.

**Juanito Gorostiza**

12.000



**ETXEBERRIA**

S6019q

**Hileta zerbitzu**

**OSOA ETA 24 ORDUKOA**

**KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK**

**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01





# A

ste honetako erretratu zaharra **Abdon Ansolak** ekarri digu. Hainbat

bidaiak egindako gizona da Abdon eta esan digunez, ez dauka gogoan noiz ateratakoa den argazkia, ziur dakiena da urte pilo bat pasa direla. Erretratua Belgikara joan ziren bidaiakoa da eta

Bruselako Erakusketa egoitzaren aurrean irriparez agertzen direnak ACME taldekoak dira.

Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara hasita, **Akizu** (plazentziarra), **Luis Maria Barandiaran**, **Juan Maria Ortueta**, **Abdon Ansolak** eta **Donato Barandiaran**: Belgika aldean egun onak pasa eta egin beharreko lanak fin bete ondoren bueltatu ziren etxe aldera.

Azken aldian erretratu zahar gutxi etorri zaizkigu erredakziora. Hortaz, zuen etxeko kajoak astindu eta ekarri itzazue argazkiak **BARRE**Nera. Ziur gaude 'peria' eder bat baino gehiago topatuko duzuela.



## "Txapelketetako tentsivak eta nerbixuek Izugarri nekatzen dabe"



### Gorka Garate

- **Adina:** 18 urte.
- **Gerrikoa:** Beltza.
- **Gogoko kirolik edo zaletasunik?** Motorrak, mendixan ibiltzia eta musika entzutia.
- **Beste arte martzialik probatu al duzu?** Ez dut besterik probatu, baina judoa gustatzen jata gehixen.

- **Espainiako Judo Txapelketako sektorean hirugarren geratu zinen. Zer moduz?** Sorbaldan tendinitisa dakat eta erdi lesionauta jun nitzan. Minak ez zian bihar bezala kontzentratzen utzi. Minik izan ez banu, zerbait gehixo itxeko auke-ria izango nuke, baina gustora nao Iortu doten hirugarren postuakin. Espainiako Txapelketa sektoreka banatzen da eta Euskal Herriak, Errioxak, Nafarroak, Aragoiak eta Kantabriak osatzen duten sektoreko txapelketan hartu nuen parte.

- **Noiz eta nola hasi zinen judoan?** Sei urte-edo nakazentian, beste bi lagunekin 'ganberruana' itxeko apuntau nitzan. Denboriakin lagunetik utzi in zaben eta nik bakarrik jarraitu dot.

- **Arte martzialak, kirol hutsa baino, artea eta bizitzeko era bat direla esaten dute. Zuk zer uste duzu?** Neretzat kirol bat besterik ez da. Hala ere, ezagutzen ditxut kirola baino gehixo dala pentsatzen dabenak. Hauen izakera ere ezberdina izaten da. Dana dala, horrelako pertsona gutxi ezagutzen ditxut eta ez dot horrelako kasurik judoan ezagutzen.

- **Ba al dakizu nork eta non sortu zuen judoa?** Jhigoro Kanok sortu zuen Japonen.

- **Nolakoa izaten da judo txapelketa bat?** Gehienez 4 edo 5 borrokaldi jokatzen ditxugu. Borrokaldi bakoitzak 5 minutuko iraupena izaten dau eta arbitruak bakarrik geldit dezake. Tentsivak eta nerbi-

xuek asko nekatzen dabe eta norberak probau arte ezin leike jakin zenbateraino kantzatzen daben txapelketako bon'okaldixek. Nik futbol partiduekin konparatzen ditxut judo txapelketak, eta judoan askoz gehixo nekatzen dala uste dot.

- **Zer egin behar da borrokaldi bat irabazteko?** 10 puntu lortu bihar dia borrokaldixa irabazteko. Arbitruak erabakitzen dau egiten ditxugun mugimenduek zenbat puntu balio daben. Kontrarixua zela jausten dan eta erabilitako mugimenduen zailtasunaren arabera banatzen dia puntuak. Adibidez, 'Ippon' bat ondo ein ezke-ro, borrokaldixa irabazten da, 10 puntu balio ditxu eta. Berez, ondo eindako mugimendu edo 'Ilave' guztixekin irabazi leike.


- **Zein da gustukoen duzun mugimendua?** Ippon Shoeinage. Txapelketetan gehixen erabiltzen dotena da. Bakoitzak ondo menperatzen ditxun 3 mugimendu eukitzen ditxu eta hoietxek erabiltzen diaz txapelketetan.

- **Kirol arriskutsua al da?** Nik beti esaten dot ezetz, baina Euskadiko azkenengo txapelketan adibidez, bukatzeko 5 segundo falta zianian, aurkakuak estrangulau eta bere azpixon geratu nitzan. Monnentu batez konortia galdu naban eta bera ez zan konturatu. Bestela, ez dot inoiz minik hartu edo ezer apurtu. Lurrera nola jauzi bihar geran erakusten digute eta ezer ein baino lehen beroketa saioak eitxia garrantzitsua da.

## KIROL ALBISTEAK • KIROL ALBISTEAK

### • 3 urrezko domina irabazi dituzte Ibaikoek Euskadiko Lutxa Libre txapelkan

Xabi Gonzalezek, Egoitz Morak eta Gorka Garatek urrezko dominak irabazi zituzten Euskadiko Lutxa Libre Txapelketan. Gazteliko Judizmendi Kiroldegian jokatu zen txapelketa joan den otsailaren 28an. Ibai Kirol Elkarteko 7 lehiakide aurkeztu **ziren** kadete eta senior kategorietan. Ibaiko kirolariak hasi berriak dira modalitate olimpiko honetan eta nahiz eta Lutxan eskarmentu handiegirik ez izan, zeresan handia eman dezaketela erakutsi dute. Orain, berriz, proba gogor bat geratzen zaie: Espainiako Txapelketa, martxoaren 13an eta 14an Madrilen jokatuko dena, hain zuzen.





# ifiroldegiko sarrera kontrolatzeko tresnak jarri ditu Kirol Patronatuak

Aurrerantzean bazkide txartela soinean eraman beharko da

**O**laizaga Kiroldegiko igerilekuko eta kantxako sarreretan tresna elektronikokak jarri dituzte. Otsailaren 26tik daude martxan. Kiroldegiko erabiltzaileen kontrola informatikoki egiteko balioko dute tresna berri hauek. Sistema honek bi helburu ditu. Batetik, Kiroldegiko bazkideen eta erabiltzaileen egonaldia erosoagoa izatea, eta bestetik, zuzendaritzaren gestioa erraztea, datuen bidezko gestio informatikoaren bitartez. Izan ere, Kiroldegiko 2.300 bazkideetatik zeinek, noiz eta zein maiztasunez erabiltzen dituzten Kiroldegiko instalazioak jakingo da. Bazkideen kontrola egiteko, kirol ins-

talazioen erretserbak kontrolatzeko eta orduregiak bete daitezen ziurtatzeko balio du sistema honek. Baita bazkideek epearen barruan ordaindu duten ala ez jakiteko ere.

Bazkide txartela soinean eraman beharko da eta tresna berrian sartzean, Kiroldegiko ordenagailuan agertuko dira bazkidearen argazkia eta datu guztiak. Beraz, ezin izango da beste norbaiten txartelarekin sartu.

Erabiltzaile guztiak izango dute txartela. Bazkideak ez direnek, euren txartelak kantxara sartzeko balio izango duen arren, ezingo dute igerilekura sartu.



*Kantxara eta igerilekura sartzeko tresna elektronikoei esker, bazkideek noiz eta zein maiztasunez erabiltzen dituzten instalazioak jakiteko aukera dute.*

## KIROL ALBISTEAK

### • Nuria Revueita hogarrena izan da Gipuzkoako AtletismoTxapelketan

Donostian izan ziren Pistako Euskadiko eta Gipuzkoako Txapelketak. Nuria Revueitak kadete nesken mailako 60 metroko lasterketan finalera heltzea lortu zuen eta finalean 5. postua eskuratu zuen 8'82ko denborarekin. Bestalde, Hernanin, Gipuzkoako Kros Txapelketan Ana Etxanizek 4. postua lortu zuen infantil nesken mailan Ana Etxaniz Gipuzkoako ordezkaria izateko aukeratu dute eta martxoaren 14an, Euskadiko Kros txapelketan hartuko du parte, Amurrión.

### • Mintxeta Atletismo Taldekoak ondo aritu dira Gipuzkoako Kros Taapelketan

Gipuzkoako Kros Txapelketa Hernanin izan zen pasa den otsailaren 28an. Mintxeta Atletismo Taldeko lasterkariak bertan egon ziren eta nabarmendu zirenak honakoak izan ziren: Dorleta Aranberri 2. geratu zen alebinetan. Alebinetan Antton Alberdi 4. sailkatu zen eta Aitor Arrillaga 7. Azkenik, Alaitz Merinok 9. postuan bukatu zuen infantiletan.

## EMA1 ZAK 1.1

### Futbola

**Haundi 0** - Barakaldo 2  
Pedrusko 4- Baskonia 2 (2. erreg.)  
Elgoibar 3 - Aretxabaleta 1 (Int.)  
Elgoibar 3- Santutxu 2 (L.N. jub.)  
Oñate 0 - Elgoibar 4 **(Nesk.)**  
Lagun Onak 2- Elgoibar 1 **(Kad.)**  
**S. D.** Eibar 2- Elgoibar 1 (1. jub.)  
Euskaldunak 1- Elgoibar 3 (1. erreg.)

### Eskubaloia

IMH Elg. 29 - Jauja 20 (Sen. mut.)  
Arrate Amaña 11 - Pagoaga Elg. 12 **(Kad. nes.)**  
Arrate Amaña 28 - Unceta Elg. 20 **(Jub. nes.)**

### Areto Futbola

Pas. Agirre 1- Zur Ta Lur Elg, 5 (1. maila)

### Futbitoia

Lojantzi 6- S. Braga 8  
Berrogei Duro 1- Los Peñaskos 3  
PSK 3- Los Herminios 0  
Aide flobun 2- Aizkorak Mendibil 6

### Idarraga Kafeak 2. saria

**HAUNDIKO** jokalaria **erregularrena 98/99**  
**JOKALARIA** ..... **PUNTUAK**

1- Aitor Trebiño .....	32
2- Eneko .....	24
3- G. Lazarobaster .....	24
4- Diaz .....	21
5- Madina .....	21
6- Ibon Muguruza .....	20
7- Txasio .....	18
8- Beitia .....	18
9- Iker Leonardo .....	17
10- Caro .....	16
11- Elkoro .....	15
12- Gurrulxaga .....	12
13- Igor .....	11
14- G. Leonardo .....	10
15- Loren .....	9
16- Portu .....	1

## AGENDA

### Areto Futbola, Kiroldegian

#### Ostirala, 5

22:10 Zur Ta Lur Elg. - Iraurgi (1. maila)  
23:10 Zur Ta Lur Elg. - Parissen **(Aton.)**

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 6  
15:30 Elgoibar - Zumaiako **(Neskak)**  
**17:15 Haundi** - Ondarroa  
**Igandea, 7**  
**12:00** Elgoibar - Arrasate **(Kad.)**  
16:30 Elgoibar - Aretxabaleta (1. jub.)

### Eskubalola, Kiroldegian

Larunbata, 6  
16:00 Pagoaga Elg. - Basauri **(Kad. nes.)**  
**17:30** Unceta Elg. - Basauri **(Jub. nes.)**

### Futbitoia, Kiroldegian

#### Igandea, 7

10:00 Spartak Braga - Kunta Kinte  
11:00 PSK - Los Peñaskos  
12:00 Los Herminios - Aide Globun  
13:00 Lojand - Aizk. Mendibil

# 21. «

## Itsasontzi baten...

**rihica,0**, toki guztietatik ikus- % ..ten den hiria da. Kultura askoren iturritik edan ondoren, kolore ugaritako motak antzematen zaizkio. "Touch and Go" edo "Quartersticks" zigiluetatik gaur egun garrantzitsuak diren taldeak atera dira. Adibidez: *Slint, Shellac, June of 44, Urge overkilli,?* edo *Girls against Boys* taldeak. RACHEL'S taldeak nahiz eta zigilu berberetan igeri egin, beraien musika beste itsaso batzuetan mugitzen da. Ia ordubeteko itsas bidaia eskaintzen digute 3. lanean. Pablo Nerudaren elaberrian oinarritutako izenburua jarri diote diskari, *The sea and the bell*, Txeloak, kanpaiak, biolinak, pianoa eta beste hainbat musika tresnek irudiz betetzen dituzte beraien diskak. Garai-kidearen eta klasikoaren artean dago diska hau, Sentsazio erosoak sortzen dituzten itsas kondairak kontatzen dizkigute. Norberaren iruditmena bultzatu nahian, olatuen zipriztinak aditzen ditugu ur gazia- ren zaporea gustagarri bihurtuz. Nola ez... behintzat ezezaguna izatearen zortea edukiko dute.

Iban Urizar

## Korrikak Elgoibarko Ebrepe enpresa omenduko du

Elgoibartik, martxoaren 24an gaueko 21:00etan pasatuko da Korrika

*Korrika, euskararen aideko jai erraldoiaren 11. edizioa izango da aurten, eta '1+1= hatnallca zu eta ni euskaraz' lema izango du. Korrikak, besteak beste, Elgoibarko Etxepe enpresa omenduko du lan munduan euskara sartzeko egin dituen ahaleginengatik eta euskararen erabilera normalizatzeko lanean dariak izan direlako. Hauek guztiak joan den ostegunean Kultur Etxean azaldu zituzten AEK-ko ordezkariak, Korrikaren aurkezpen ekitaldian.*



11. Korrikaren aurkezpenean, Izaskun Belategi AEK-kozuzendariak eta Etxepe lantegiko bi kidek hartu zuten parte.

Aurreko edizioetan pertsona bakarra omentzen bazen ere, 11. Korrikan, euskararen normalizazioaren alde egin den lan guztia errekonozitu nahi dute. "Korrikak hamaika lan egindako pertsonak edo taldeak bildu nahiko lituzke. Hainbeste izanik orde, ezinezkoa da denak omentzea. Beraz, 11 lagun, herri, talde etab. aukeratu dira eta euskararen alde erakutsi duten konprometua errekonozituko da. Egindako lana, egiten ari direna eta, ezbairrik gabe, egingo dutena hartuko da aintzat".

II. Korrikaren aurkezpenean, Izaskun Belategi Elgoibarko AEK-ko arduraduna izan zen hizlaria eta Etxepe enpresatik Xabier Uriguen eta Karmelo Bilbao egon ziren. Peli Uriguenek eta Felix Etxeberriak ez zuten joaterik izan. Izaskunek adierazi zuenez, "Elgoi-

bartik pasatu diren IO Korriketan hartu dute parte Etxepekoek, bai dirulaguntzen bitartez, bai antxitxika eginez" Elgoibarko AEKren izenean 20 urte hauetan Etxeppek eskainitako laguntza eskertu zien Izaskunek, "herritik kanpo euskaltzaleen errekonozimendua jasoko dute eta guk ere zoriondu nahi ditugu".

Elgoibartik, martxoaren 24an, asteazkena, pasatuko da Korrika gaueko 21:00ak aldera. Lekukoa Azkaraten jasoko da, eta Madalan egingo zaio harrera. Korrikak Eibarrerako bidea hartuko du ondoren. AEK-koek jendearen partehartzea eskatu zuten, korrika eginez edo ekonomikoki lagunduz. "Kilometro bakoitzaren zenbatekoa 40.000 pta. dira, baina diruarengatik ez da inor kanpoan geratuko. Bakoitzak ahal duen heinean laguntzea da kontua".

## Teatro Estable de Malagak

### lActo Impreuls20º antzezlan eskainiko du


Emakumeen Nazioarteko Astean, *Teatro Estable de Malaga* antzerki konpainia profesionalak, 'Acto Imprevisto' antzezlan eskainiko du, gaur, hilak 5. Haizea Emakume Taldeak Udalaren laguntzaz antolatutako saioa da eta Emakumeen Nazioarteko Astearen barruan kokatzen da. Gaueko 22:30ean hasiko da emanaldia Herriko



Antzokian. Antzerkiak bi emakume garbitzailereren gorabeherak kontatzen ditu. Antzerki eskenatoki bat garbitzen dauden bitartean, barru-barruko irrika eta sekreturik gordeenak kontatzeko beharra sentituko dute. Eskenatokia hutsik ikusteak horretara bultzatuko ditu. Bi garbitzaileek beraien bizitza tristeen berri emango digute modu umoretsu an eta ironikoan.



# URI9/10 IKASKETAK



- Nolatan erabaki zenuen Turismoa ikastea? - Nik albaitaritzea ikastea nahi nuen, baina karrera horretan sartzeko behar zen nota ez nuen atera. Beraz, beste ikasketa batzuetan pentsatzen hasi nintzen. Amak Turismoa polita izan zitekeela esan zidan eta horri ekin nion. Iaz hasi nintzen eta karrera aurrera doan heinean gusturago nago ikasten.

**2 - Unibertsitate pribatuan ikasten ari zara.** - Bai, Deustuko Unibertsitateak Donostian daukan Turismo Eskolan nago. Orohar ez dauka publikoarekin ezberdintasunik. Abantaila bakarra izena da, eta horrek ematen dion ospea. Baina izena edukitzeak gehiago ordaintzea esan nahi du, eta hori, noski, gure ikasketek baino politikoak igartzen du gehiago.

**3 - Nolako ikasketak dira?** Ikasgaiak arlo ugariatokoak dira. Besteak beste, geografia, zuzenbidea, ekonomia eta atzerriko hizkuntzak ikasten ditugu. Praktikak eskolatik

kanpo egiten dira. Karrera bukatu aurretik, Unibertsitateak 300 ordu praktikoko betetzea eskatzen digu. Kredituen sistema berrian, 300 ordu baino gehiago eginez gero, ordu horien araberako kredituak ematen dizkigute.

**4 Orain praktikak egiten ari zara.** Bai. Elgoibarren bidaiaria agentzia batean nago. Klasean ez digute erakutsi ordenagailuetan erretserbak eta antzeko datuak nola sartu behar diren, beraz, horrelakorik ezin dut egin. Oraingoan, piskanaka ari naiz ikasten.


**5- Hizkuntzak ere ikasi beharko dituzue.** - Fakultatean ingelesa eta frantsesa dauzkate ikasgai bezala, eta hauek dira geografiarekin batera garrantzitsuak. Karrera aparte, ez naiz beste hizkuntzarik ikasten ari. Karrera bukatutakoan, beharbada, alemaniera ikasiko dut, atzerriko bi hizkuntzarekin nahikoa da momentuz. Aurten atzerriko joango naiz udan maila hobetze aldera.

**6 Egunero ikasten al duzu?** Ez dut dena azkenengo momenturako la-

gutzen, baina erabat egunean ere ez daramat guztia. Apunteak hartu eta fotokopiatu aterata moldatzen naiz eta orain artekoa ondo joan zait.

**7- Lan merkatua nola ikusten duzu Turismo alorrean?** - Irakasleek irteera asko dauzkan karrera dela esaten digute. Jatetxeetan, bidaiaria agentzietan, hoteletan eta beste zenbait lekutan lan egiteko aukera daukagu. Hala ere, badauka eragozpen bat, oso lan lotua dela. Adibidez, hotel batean lan eginez gero, oporrak hartzea nahiko zaila izaten da.

**8 - Aurrera begira zer asmo daukazu?** - Orain 2. mailan nago, eta lehenengo, karrera bukatzea da nire helburua. Hala ere, Unibertsitatean Turismoa lizentziatura jartzeko asmoa dagoenez, ideia hori aurrera ateraz gero, ikasketekin jarraituko dut. Bestela, adaptazio kurtso baten bidez beste karrera bat egitea egokia iruditzen zait. Oraindik, nire buruari ez diot serio planteatu ideia hori. Hizkuntzak ere ikasi behar ditut eta karrera bukatzean beste hizkuntza batzuk ikasteko aprobeztatuko dut.



Amaia

## ☐ TURISMOKO DIPLOMATURA 111

UNIBERTSITATEAK .....	NOTAK
Deustu .....	
Alcala de Henares-Madrid .....	7 25
Alicante .....	6 44
Almeria .....	5 00
Jaume i de CastellOn .....	6 13
Las Palmas de Gran Canaria .....	7 74
Wlaga .....	
Oviedo .....	6,29
Polimcnica de Valencia .....	

RO

# INTERESEKO TELEFONOAK

## OSASUNA

### Anbulategia:

Larrialdiak ..... 943 461111

Txanda hartzeko 943 743354

Planning-a ..... 943 742950

Alkoholiko Anonimoak . 943740385

D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622

Gurutze Gorria .. 943 743864

Mendaroko Ospitalea.. 943 032800

Odol Emaileak .. 943 743936

## GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . 943 740442

PESA (Eibar) .. 902 10 12 10

Taxi geltokia 943 740898

## UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366

Udal Kirol Patronatua.. 943 744415

Kultura Zerbitzua.. 943 742158

Mendaroko Udala... 943 756100

Ongizate zerbitzua... 943741008

Udaletxea ..... 943 741050

Udaltzaingoa ..... 943 741394

## BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626

Kiroldegia ..... 943 744415

Kontsumo Bulegoa .. 943 743088

Liburutegia ..... 943 743525

Musika Eskola 943 742145

Mintxeta ..... 943 744315

Parrokia ..... 943 740842

Postetxea ..... 943 741547

Gaztetxea ..... 943 743572

## ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza. 943 740296

Zaharren Biltokia . 943 740526

## IKASTETXEA

Haur Eskola . 943 74 21 41

HHI (EPA) ... 943 74 08 80

Herri Eskola ... 943 74 08 79

I.M.H. .... 943 74 41 32

Herri Institutua

Arreiturre ..... 943 74 02 67

Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80

Ikastola ..... 943 74 44 41

Pilar Ikastetxea... 943 74 13 31

## KOMUNIKABIDEAK

BARREN ..... 943 74 41 12

El Diario Vasco 943 74 40 73

El Correo Español 943 74 10 82

Egin ..... 943 10 84 21

Zazpiki Irratia 943 74 34 74

# 5 ostira.la

22:30 KORRIKA KULTURALA  
Mikel Markez eta  
Pako Aristiren musika eta  
poesia emanaldia  
Kultur Etxean  
Antolatzailea:  
Elgoibarko AEK

22:30 ANTZERKIA  
Antzeztaldea:  
Teatro Estable de Malaga  
Antzezlanaz: 'Acto  
Imprevisto' (gaztelaniaz)  
Antolatzailea: Haizea E.T.  
Herriko Antzokian

# larunbata

13:00 EUSKAL PRESOK  
EUSKALERRITZEAREN  
ALDEKO MANIFESTAZIOA  
Irteera Plaza Handian  
Antolatzaileak: EA, HB eta  
IU/EB alderdiak

19:30-22:15 ZINEA  
"El milagro de P. Tinto"

21:00 IV. 'BARRIKOTEA'  
KIMETZ ELKARTEAN  
Eusebio Lasarte bertsolari  
eta txiste kontalariarekin  
Antolatzailea:  
Kimetz Elkartea

22:30 ELGOIBARKO  
EMAKUMEEN  
EKITALDIA  
Kantariak, trikitilariak,  
bertsolariak, kafea, e.a  
Kultur Etxeko sotoan  
Antolatzailea: Haizea E.T.

# 7 igandea

11:00 EIBARKO UDAL  
BANDAREN KALEJIRA

12:30 EIBARKO UDAL  
BANDAREN KONTZERTUA  
Herriko Antzokian

16:30 ZINEA  
"Hormigaz"

19:30-22:15 ZINEA  
"El Milagro de P. Tinto"

# 8 astelehena

22:15 ZINEA  
"El Milagro de P. Tinto"

# 9 asteartea

19:00 ZINEA  
GURASOENTZAT  
'Zinea Irakaskuntzan'  
programaren barruan  
Izenburua: 'Barrio'  
DBHko 3. eta 4. mailako  
gurasoentzat  
Herriko Antzokian

# 10 asteazkena

18:00 LABEKO  
ESMALTE IKASTAROA  
Egurren egoitzan  
Hilaren 31ra arte  
Antolatzailea:  
Egur Arte tailerra

# 11 osteguna

19:00 EUSKAL  
HERRITARROK (EH)  
TALDEAREN  
AURKEZPENA eta  
LEHENENGO BILERA  
Kultur Etxean

22:15 ZINE KLUBA  
"Hombres armados"

# 12 ostirala

22:15 ZINEA  
"Enemigo piblico"

# 11 NE A



Zuzendaria: Javier Fesser  
Antzezleak: Luis Iges,  
Silvia Casanova, Pablo Pinedo.

## El Milagro de P. Tinto

Bizitzaren zentzua ume osasuntsuak eta zoriontsuak hezitzean dagoela uste du P.Tintok. Horregatik, Olivia bere emaztearekin batera, guraso onak izateko gozoz prestatuko dira. Baina urteak azkar pasatu dira bizi diren tren geltoki bakartian, eta zahartzarora semerik eduki gabe heldu dira. Egun batez ordea, miraria gertatuko da... Hauze da altatasunari buruzko tragikomedia surrealista honek kontatzen diguna.



• **Garizumako hitzaldiak martxoaren 8an hasiko dira Parrokian**

Martxoaren 8an hasi eta ostiralera arte, martxoak 12, luzatuko dira Garizumako hitzaldiak San Bartolome Parrokian. Hizlaria Arantzazuko Santutegiko Iñaki Beristain frantziskotarra izango da, ETBko 'Fede giroan' programa erlijiosoaren arduraduna. Hitzaldiak arratsaldeko 16:30ean euskaraz izango dira eta iluntzeko 20:00etan, berriz, gaztelaniaz.

• **Zine emanaldia DBHko 3. eta 4. mailetako gurasoentzat**

Datorren asteartean, martxoak 9, Fernando Lel5n zine zuzendaiaren *Barrio* pelikula emango da Herriko Antzokian 'Zinea. Irakaskuntzan' programaren barruan. Egitasmo honetan parte hartzen duten DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen gurasoei dago zuzendua. Emanaldia iluntzeko 19:00etan izango da eta pelikularen gaiari buruzko eztabaida txiki bat egingo da: gazteen aisialdian zer egin daitekeen. Aditu batek zuzenduko du eztabaiada eta bertara joaten diren guztien artean programari buruzko materiala banatuko da.

• **Bihar, larunbata, 4. <sup>1</sup>Barrikoteat Kimetz Elkartean**

Martxoaren 6an, larunbata, 4. 'Barrikotea' izango da Kimetz Elkartean. Sagardotegietako ohiko jakiez osatutako afaria izango da. Gaueko 21:00etan hasiko da eta Eusebio Lasarte bertsolari eta txiste kontalari oriotarrak alaituko du afaloste. Afariaren prezioa 2.200 pta.koa da eta afarira joan daitezkeen lagunen kopurua mugatua denez, txartelak ohiko tabernetan aurrez erostea komeni da.

• **figolbarko emakumeen ekitaldia, Haizea Emakume Taldeak antolatua**

Elgoibarko emakumeen emanaldiez osatutako ekitaldia izango da larunbatean, hilak 6, Kultur Etxeko sotoan. Gaueko 22:30ean hasiko da eta parte hartuko dutenak hauek dira: Nathalia Mellado abeslaria, Oihane Valenciano eta Onintza Arrizabalaga trikitilariak eta Irati Agirre-azaldegi bertsolaria. Haez gain, Edurne Lasak Jasone Osororen ipuin bat irakurriko du eta Mari Juli Arregik kitarrarekin lagunduko dio. Joaten direnei kafea eta pastak banatuko zaizkie.

• **Eibarko Udal Bandaren kalejira eta kontzertua**

Igandean, hilak 7, goizeko 11:00etan Eibarko Udal Bandaren kalejira izango da Elgoibarko kaleetan. Eguerdiko 12:30ean, berriz, kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian. *Playas de Estepona, Agua, azucarillos y aguardiente, Gran jota de la 6pera 'La Dolores', La gazza ladra eta Sing Sing Sing* dira kontzertuan joko dituzten piezak.

• **EHren aurkezpena eta lehen bilera**

Datorren ostegunean, hilak 11, Euskal Herritarrok taldearen aurkezpena eta lehen bilera egingo da Kultur Etxean. Gaur egungo egoera politikoaren azterketa egingo da. Landuko diren gaiak Lizarra-Garazi akordioa, Udalerrien Biltzarra eta ekaineko udal hauteskundeak dira. Saioa iluntzeko 19:00etan hasiko da.

• **Ongarri Zine Klubaren martxoko egitaraua**

Ongarri Zine Klubeko kideek ezagutzera eman dituzte martxorako prestatutako pelikulen izenburuak. Hilaren 11n, iaz Donostiako Zinemaldian kritikaren saria irabazi zuen 'Hombres armados' pelikula iparramerikarra emango dute. Hurrengo astean, hilaren 18an hain zuzen, A. Egoyan kanadiarraren 'El dulce porvenir' filma ikusteko aukera izango dugu. 98an Oscar Sarietarako zuzendari onenaren saria irabazteko hautagaien artean egon zen. Azkenik, martxoaren 24an eta 25an, 'Gato negro, gato blanco' pelikula emango dute, E. Kusturika serbiarrarena. 98an egindako pelikula honen zuzendari onenaren saria irabazi zuen Veneciako jaialdian.

111

**FARMAZIAK**

Egunez Gauez  
**6 Yudego\* Yudego**  
**7 Yudego\* Yudego**  
**8 Zabaleta Zabaleta**  
**9 Etxeberria Etxeberria**  
 (Rosario kalean)

**10 Escala Escala**  
**11 Bidasolo Bidasolo**  
**12 Etxeberria Etxeberria**  
 (Santa Ana kalean)

\***Iteguerdiko 2ak arte**  
**ESCALA: Rekalde, 1**  
**Soraluze. Tel: 943 75 16 38**  
**ANDUAGA: Mendarozabal, 1**  
**Garagarza. Tel: 943 75 61 42**  
**ZABALETA: Kalebarren, 9**  
**Soraluze. Tel: 943 75 13 84**

**OKINDEGIA**  
**7 igandea Idarraga**

• • 111 111 • • 111 111 • • • **RENZ** • • •

**ONGARRI**  
**zine kluba**



Zuzendaria: John Sayles.  
 Antzezleak: Federio Luppi,  
 Daminn Delgado, Dan Rivera.

**Hombres armados (USA 1997)**

Fuentes doktoreak Ertamerikako oihanera itzultzea erabakitzen du. Beste zenbait kiderekin batera 'La Alianza para el progreso' delako taldea sortu zuen baina piskanaka piskanaka, taldeko kideak desagertzen joan dira. Oihanean dagoela, indigenen bizimodua ezagutzeaz bat, nolako zapalkuntza jasan duten konturatu da. Errealitate berriaz jabetuta, bere pentsamoldea erabat oken'a zela ikusiko du.

■ ■ ■ ■ • la ll • • • 111 ■ R • • • III ■ • 111 • al • • • ■ • •

## Lana

### \*ESKAINTZM

- Emakumea zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. -a\* **943 19 24 31**
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. **tr 943 74 20 32** (arratsaldeko 19:30etik aurrera)
- Elgoibarren etxeko lanak egiteko emakumea behar da. **te 943 74 38 36** (goizez)

### \*ESKAERA\*

- Emakume brasildarra eskaintzen da umeak edo etxeko lanetarako. 10:00etatik 16:00etara. (Cristiane) n. **943 74 07 07/74 08 81**
- Agureak, gaixoak, etab, zaintzeko prest nago. Arratsaldez edo gauez. Esperientziarekin. **tr 630 20 97 31.**
- Neska eskaintzen da. Arduratsua eta esperientziarekin etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. **vr 610 68 52 95**
- Magisteritza ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko Elgoibarren edo Mendaron. Orduetgia hitz egitekotan. **Ir 943 74 20 94** (Yolanda)
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. **tr 943 75 62 57**
- Etxeko lanak egin edo lokalak, dendak eta portalak garbituko nituzke. Esperientzia eta informeak ditut. •**r 943 74 38 45** (Matilde. Erantzungailuan laga mezu)

## Salerosketak

### \*SALDU\*

- Ford Courier Combi 1.8D saltzen da. Ondo zaindua, 1992ko uztailean erosia. **IT 610 65 34 52** (gauez)
- Gorrerarentzako aparatua saltzen dut. 8 hilabeteko garantia du, **is\* 943 74 21 40**
- 14"ko pantaila, 10X CD ROMA eta S3 txartel grafikoa salgai. Oso merke. **Tr 943 74 00 07**
- Citroen ZX 1,81 salgai. Egoera onean. Interesatuek deitu **630 52 60 52** telefonora.
- Dynastar modeloko skiak saltzen dira. Altuera 1,85m. Nordica botak, zenbakia 42-43. **7r 943 74 18 55**
- Txalet modeloko kanpin denda haundia saltzen dut. Egoera onean. Abanzea, egoteko lekua eta bi gela bikoitz ditu, **Ir 943 20 6S 4S** (8:00-16:00) **943 79 05 14** (19:30etik aurrera).

## Bestelakoak

- Critas-ek butanozko estufa bat eta labadora bat behar ditu. **ar 943 74 15 09**
- Jubilazioagatik, martxan dagoen negozioa traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezioa hitz egitekotan (aukera ona). **943 74 02 27** Celsa
- Urrezko aliantza galdu nuen Inauterietako larunbatean. **7r 943 74 40 56** (Manoli)
- Astearte arratsaldean, inauterietan eta hondartzan ateratako argazki batzuren negatiboak aurkitu nituen. Jabeak Udaletxean aurki ditzake.
- Urrezko belarritakoa topatu nuen duela astebete San Frantzisko kalean (karkizano inguruan) **tr 943 74 05 17**

## Garajeak

- Leku Ederren garaje marraduna edo itxia alokatu nahi nuke. **n 930 54 99 31**
- Garajea saltzen da Urasandi 6an. Argi independentea. **tr 943 74 08 63**

## Etxebizilzak

- Pisu txikia alokatzen dut. Errosario, 9-1.ez.k. **Tr 943 74 09 74** (Dolores)
- Lokal bat alokatu nahi genuke. 20.000pta. ordaintzeko prest gaude lokalaren arabera. **1s 943 74 35 68** (Abraham).
- Ganbara bat alokatu nahi nuke, Gehienez 30,000pta. ordaintzeko prest nago. **tr 943 20 01 01**
- Pisua alokatzen da Erretxindin. **Altzariekin, tr 943 74 33 06**
- Etxebizitza saltzen da Errosario kalean. **tr 943 74 17 95**
- Pisua edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. **la\* 943 74 31 75**
- Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua da, ganbara eta igo-gailuarekin. **s 943 74 03 83** **943 74 18 34**

## Agurrak

- Zorionak **Ane Uraini** otsailaren 23an urteak bete zituelako. Lara eta gurasoen partez.
- Zorionak Alazneri otsailaren 25ean urteak bete zituelako. Lara eta Ainhoaren partez.
- Zorionak **Alazne Eskuderori** Estibalizen partez eta baita 5. maila osoaren partez ere, hilaren 25ean 11 urte bete zituelako.

- Zorionak **amama Angela,mar-txoaren** leian 79 urte bete zenituelako. Familia osoaren partez musu haundi bat.
- Zorionak Mireia Gonzalezi otsailaren 28an urteak bete zituelako. Baita ere, Zorionak **Angel Quintanari** martxoak 2 urteak bete zituelako. Bere koadrilakoen partez.
- Zorionak Olatzeri martxoaren 6an urteak beteko dituelako. Lagun guztien partez eta bereziki Danele, Elixabet eta Idoiaren partez. Ondo pasa.
- Zorionak Palxi Loiolari gaur 11 urte bete dituelako. Lara, Ione, Kimetz, Jaelen eta Mikelen partez.
- Zorionak Nievesi larunbatean imeak betetzeko dituelako. Bere bi seme Jael eta Joshua eta iloba loneren partez.
- **Zorionak amatxo**, martxoaren 3an urteak bete zenituelako. Familia osoaren partez, bereziki Ihigoeren partez.



• Zorionak **Ainkma**, gaur nahiz eta 8 urte bete, etxeko umia izaten jarraitzen duzuelako.



• Zorionak **Aitor Gurrutxagari** hilaren leian urtebete egin zuelako. Familia osoaren partez, bereziki anaia Asierren partez.



• Zorionak **Idoari** hilaren 2an 8 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.



• Zorionak **Andoni Hernandezi** bihar 3 urte beteko dituelako. Arreba Maria eta familiaren partez.



• Zorionak **Maryu**. Zenbat urte bihar? Ondo pasau eta gutxi gastau Jo-xemielen partez.



• Zorionak **Abeli eta Martari** otsailaren 25ean Eneko txikia gure artera ekarteagatik. Familia osoaren partez,

- Zorionak **Alazne** martxoaren 3an 6 urte bete zenituelako. Guraso eta ahizpa Iruneren partez.



• Zorionak **Ane Uraini** martxoaren leian 5 urte bete zituelako. Familia osoaren partez, eta bereziki aitaxo, amatxo eta Iratiren partez.

- Zorionak **fLarrafiagari** martxoaren 10ean 4 urte beteko dituelako. Elgoibarko familia osoaren partez egun ona pasa dezazula. Asko maite zaitugu.



• Superzorianak **Jonatan Marlini** gaur 13 urte bete dituelako. Egun zoragarria pasa dezazula guraso eta arrebaren partez.

- Zorionak **Nerea Solozabali** hilaren 2an urte bat bete zuelako. Aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak **Natalia Solozabali** bihar 7 urte beteko dituelako. Gurasoen partez.

- Zorionak **Mireiari** gaur urteak bete dituelako. Ondo pasa konbitean eta musu haundi bat gurasoen partez.



• Zorionak **amama Leo** zure urtebetetzear. Familia osoaren partez eta bereziki Ane eta Iratiren partez.



• Zorionak **Aner Astigarragari** martxoaren 8an 2 urte beteko dituelako. Aitaxa eta amaren partez.





# Jantzi ezazu udaberriko moda



...eta Errosario kalean  
beherapenekin jarraitzen dugu



%50



San Bartotome, 13 - Errosario, 12  
Tel. adl 7A 11 90


# GARATE

bo.onc.) Jantzidenda



## BIZITZEKO ERA BERRIA

45 Deo



*Residencial*  
**Magdalena**  
**Maala**

**Estilo berritzailea duen ingurua sortu nahi dugu. Gaur egungo bizitzeko erari konponbide berriak eta behin-betikoak eskaintzen dizkiogu. Apartamentuako 2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. Terraza zabaleko duplex-ak o Etxebizitzak lorategiarekin. Garajeak o Trastelekuak eta saltokietarako lokalak.**



Argibideak eta salmenta: obran bertan



**943 74 24 00**

Sustatzailea:

**MENDIBIL  
ELGORRIAGA,  
A.I.E.**

Eraikitzailea:

411 - - -  
**WAMIL  
CONSTRUCC~S.A.**